



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,
[REDACTED] JAUNAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEN
DUENA**

Espediente-zenbakia: 33/2016

AURREKARIAK

LEHENA.- [REDACTED] jaunak Kirol Justiziako Euskal Batzordeari (aurrerantzean, KJEB) bideratutako idazkia aurkeztu du -1041171 erregistro-zenbakiarekin sartu da Herri Administrazio eta Justizia Sailean, 2016ko azaroaren 11n-, Karateko Bizkaiko Lurralde Federazioaren hauteskundeak inpugnatuz. Idazkiaz gain, honako agiri hauek aurkeztu dira:

- Herri Administrazio eta Justizia Sailak urriaren 24an eta 31n zigilatutako 933676 eta 984932 erregistro-zenbakietako bi idazki, hurrenez hurren. Horiez gain, beste bi idazki erantsi dira: horietako batek ez du datarik eta KBLFren Hauteskunde Batzordeari bideratuta dago, Bizkaiko Foru Aldundiko (aurrerantzean, BFA) Eskola Kirol arloko buru [REDACTED] jaunaren bitartez; bigarrena 31koa da eta Hauteskunde Batzordeko lehendakari [REDACTED] jaunari bideratuta dago, hura ere [REDACTED] jaunaren bitartez.
- Kirolarien hautagaitza-kopia, 7. eranskina.

BIGARRENA.- Batzordeari bideratutako idazkiari jarraikiz, honako hau eskatzen du: «Honen bidez, Karateko Bizkaiko Lurralde Federazioaren hauteskundeak INPUGNATU nahi dira, federazioak hauteskundeetan hautagai gisa aurkezteko eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditudanez, 2016ko



urriaren 20an nire hautagaitza aurkeztu (903213 zenbakiarekin erregistratu zen EJn) eta hura baztertu egin baitzen.

█ jaunak egin zuen egun berean eta modu berean aurkeztu nuen nire hautagaitza.

Erreklamazioa ere epe barruan aurkeztu nuen, 2016ko urriaren 24an (933676 zenbakiarekin erregistratu zen EJn), eta ez didate erantzun ere egin, nire erreklamazioari kasu zipitzik ere egin gabe. █ jaunaren modu eta bitarteko bera erabili nuen hura aurkezteko, baina hura hautagai gisa onartu zuten eta ni ez, hauteskundeetan parte hartzea galaraziz.

Erantzunaren zain izan naiz, baina, dirudienez, ez dute erantzuteko asmorik. Hori dela-eta, 2016ko urriaren 31n beste erreklamazio bat aurkeztu nuen (984932 zenbakiarekin erregistratu zen EJn) nire hautagaitza eta behar bezala aurkeztutako erreklamazioa kontuan ez izateagatik.

Oso bitxia iruditu zait hautagai-kopurua batzorde orokorra osatzen duten kide-kopuruaren berdina izatea. Beharbada, ni ez gehitu izanaren arrazoia horrek bozketa bat egitera behartzen zituztela izango da, ez baitzuten bozketarik egin nahi izango».

HIRUGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsio hori izapidetzea onartu zuen, eta alderdi errekurrituari jakinarazi zion hamabost laneguneko epea zuela zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitze jotako froga-izapideak proposatzeko.

Horren ostean, 2017ko urtarrilaren 3an, █ eta █ jaunek Karateko Bizkaiko Lurralde Federazioaren Hauteskunde Batzordeari bideratutako jakinarazpenik jaso ote zuten jakin nahi izan zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, eta, hala izanez gero, baita horien inguruko datuak ere.

LAUGARRENA.- Karateko Bizkaiko Lurralde Federazioa eta Elkartutako Kirolak erakundeko lehendakariak, abenduaren 15ean eta 16an erregistratutako



idazki bidez, hainbat alegazio aurkeztu zituen, baita BFAk ere, urtarrilaren 13an erregistratutako idazki bidez.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, KJEBk du errekurtsio hau ezagutzeko eskumena.

BIGARRENA.- Laburbilduz, honako hau planteatzen du errekurtsogileak:

- a) 2016ko urriaren 20an, hautagai gisa aurkeztu zen, kirolarien estamentuaren bitartez (903213 zenbakiarekin erregistratu zen EJn);
- b) epe barruan aurkeztu zuen erreklamazioa, 2016ko urriaren 24an (933676 zenbakiarekin erregistratu zen EJn);
- c) beste erreklamazio bat aurkeztu zuen 2016ko urriaren 31n (984932 zenbakiarekin erregistratu zen EJn).

HIRUGARRENA.- Onetsitako hauteskunde-egutegiak honako hau dio:

«- Urriaren 14tik 20ra, biak barne, Batzordeko estamentuen ordezkartzarako hautagaiak aurkeztuko dira.

- Urriaren 21ean: hautagaien behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

- Urriaren 22tik 24ra, biak barne, hautagaien behin-behineko hautagai-zerrenden erreklamazioak aurkeztuko dira.



- Urriaren 25ean eta 26an: ebazpena».

LAUGARRENA.- Gaia epaitu ahal izateko, bi alderdiek proposatutako adierazpenak eta frogak baloratu behar ditugu.

Horrela, aktoreak honako hau badio: «2016ko urriaren 20an, hautagai gisa aurkeztu zen (903213 zenbakiarekin erregistratu zen EJn)», ez du informazio hori bermatzen duen dokumenturik edo daturik aurkezten.

Are gehiago, honako hau dio bere idazkian: «(...) epe barnean egin nuen erreklamazioa, 2016ko urriaren 24an (933676 zenbakiarekin erregistratu zen EJn), eta ez didate erantzun ere egin, nire erreklamazioari kasu zipitzik ere egin gabe. [REDACTED] jaunaren modu eta bitarteko bera erabili nuen hura aurkezteko, baina hura hautagai gisa onartu zuten eta ni ez, hauteskundeetan parte hartzea galaraziz.

Erantzunaren zain izan naiz, baina, dirudenez, ez dute erantzuteko asmorik (...).».

Nolanahi ere, Federazioak aurkeztutako dokumentazioan Federazioak urriaren 26ko 21:14an errekurtsogileari igorritako mezu elektronikoaren kopia jasotzen da, eta jarraian jaso dugun 4. zenbakiko akta esleitu diogu hari: «Erabakiak. 2.2 [REDACTED] jaunak bere ustezko hautagaitza Hauteskunde Batzorde honek joan den ostiraleko, hau da, 2016ko urriaren 21eko bileran onartutako hautagaitzen behin-behineko jakinarazpen-akordioan ez txertatu izanarekin lotuta aurkeztutako erreklamazioari dagokionez, hura ez txertatu izana honako arrazoi honi dagokiola esan behar dugu: gure aurreko bilera egin zenean (2016ko urriaren 21ean) eta gaur egun ez dugu hark nagusitutako hautagaitza jaso, eta Federazioaren administrazio-zerbitzuek jakinarazi digute hautagaitza hori ez dela inola ere jaso; horrenbestez, hura dagokion moduan eta egunean aurkeztu duela egiaztatzen duen frogarik ez dagoenez,



██████████ jaunak aurkeztutako erreklamazioa guztiz EZESTEА erabaki da».

Era berean, aktoreak dio «epe barnean erreklamatu zuela, 2016ko urriaren 24an (933676 zenbakiarekin erregistratu zen EJn)».

Erregistro-zenbaki horrekin -933676 zenbakiarekin erregistratu zen EJn-, Eusko Jaurlaritzak zigilatutako dokumentua agertzen da, hau da, idazkia ██████████ jaunari bideratuta zegoela jasotzen duen BFAren eta KBLFren Hauteskunde Batzordearen dokumentua.

Bestalde, BFAk behar bezala ziurtatu du bere egoitzetan bi idazki erregistratu zirela: batetik, urriaren 27koa; eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzan 984932 zenbakiarekin erregistratu zena, azaroaren 4koa. Azken alderdi hori posta ziurtatu bidez jakinarazi zitzaion errekurtsogileari, azaroaren 17an jaso zuen jakinarazpena.

BOSGARRENA.- Azken finean, aktoreak ez du egiaztatu hautagaitza egutegian eta hauteskunde-erregelamenduan zehaztutako epean eta moduan aurkeztu zuenik.

Frogaren baterako balorazioaren arabera -Federazioak eta BFAk bidalitako dokumentala- Hauteskunde Batzordeak 26ko saioan mantendutakoa ondoriozta daiteke -4. zenbakiko akta-: «Hura ez txertatu izana honako arrazoi honi dagokiola esan behar dugu: gure aurreko bilera egin zenean (2016ko urriaren 21ean) eta gaur egun ez dugu hark nagusitutako hautagaitza jaso, eta Federazioaren administrazio-zerbitzuek jakinarazi digute hautagaitza hori ez dela inola ere jaso; horrenbestez, hura dagokion moduan eta egunean aurkeztu duela egiaztatzen duen frogarik ez dagoenez, ██████████ jaunak aurkeztutako erreklamazioa guztiz EZESTEА erabaki da».



Hori guztia dela eta, Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

██████████ jaunak Karateko Bizkaiko Lurralde Federazioaren hauteskundeak inpugnatzeko helburuarekin aurkeztutako erreklamazioa ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtso-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 23a

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea